



Txarangan bidea urratuz



V. URTEURRENA

Maria Isabel Zabaleta Bergaretxe

2010eko irailaren 1ean hil zen.

**Samindurik dugu bihotza,
motel bizitzaren garra.
Gaur ahul sumatzen dugu
zuk emandako indarra.**

Familiakoak




Miren Arrieta Barrenetxea

2015eko uztailaren 24an hil zen, 92 urte zituela. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.

**Gure ondotik
joan zara,
baina betiko izango zaitugu
gure bihotzean.**

Zure sendiak



Miren Arrieta Barrenetxea

2015eko uztailaren 24an hil zen, 92 urte zituela.

**Uda hasita utzi gintuzun,
bai Miren gure laguna;
urtetan zure irribarrea
izan dugu ezaguna,
zarata gabe eta bakean
joan zara gure kuttuna.**

**Zure esfortzu ta adibidea
da guretzako eredu.
Urte askotan zuek egina
jarraitzeko hor gaude gu,
zuen babes delako beti
gure indar ta sostengu.**





ABEL ARRIAGA



“Herritarren laguntzeko eta lanerako borondatearekin geratzen naiz”

Aupa, Andoitz. Bukatu dira jaiak. Heldu zaigu atal honetan estreinakoz idazteko ordua. Morkaiko M.Ean elkarrekin jardun ondoren, BARRENEN txioka aritzea tokatzen zaigu orain. Denborak ematen duen perspektibatik, mendi elkarteari begira jarri naiz. Ukaezina da aldaketa batzuk izan direla azken urteotan. Bazkideok Azaolan egindako gogoe-taren ondorio dira gehienak. Berrikuntzen artean daude, Morkaikoren eguna, gure ondarearen berreskurapena, mendi bizikleta, raid-a... Betikoak ere aipa nitzake, baina ekintzak ekintza, ezin dugu ahaztu guztien oinarrian badaudela balore batzuk. Bazkideok elkarteari erantsitako baloreak, mendizaletasunari berari lotuak gehienak.

Elkarlana da, nire ustez, aipagarriena. Aurtengo Morkaikoren egunean, lagun askok parte hartu zuen Itzulian, Itzuli-

txoan eta Finalista egunean, baina batez ere herritar asko hurbildu zitzaigun, beraien laguntza eskainiz. Azken honekin geratzen naiz: herritarren laguntzeko eta lanerako borondatearekin.

Auzolanean berreskuratutako mendi ondarea da beste adibide bat. Baina nik, beste hau azpimarratuko nuke guztien aurretik: Morkaiko M.Earen laguntzarekin, herriko bikasteetxeetako gurasoen arteko elkarlana. Ikastolako eta Herri Eskolako gurasoek, batera antolatzen dituzte umeentzako mendi irteerak, arrakasta handiz, elkarrekin, ezberdintasunak alde batera utzita. Elkarlan hau beste arlo batzuetara ere zabaltzea polita litzateke. Eredugarri gure seme-alabentzat. Guretzat.

Bukatzeko, mendizaletasunaren baloreei buruz ari garela, ezin aipatu gabe utzi, inoiz Morkaiko M.Eari ezezkorik eman ez zion Pako Iriondo. Ereduetan, eredu.



ANDOITZ AGIRREGOMEZKORTA



“Mendixan beste iñun baino argixago ikusi dot alkarri lagunduta urrutirago allegauko garala, alkarri kontra eginda baiño”

Apa, Abel. Saltsa askotan eitten dogu topo eta gaur hemen ere bai! Morkaikon aldaketei buruz jardun dozu eta gizartiak berak bezela elkartiak ere aldatu biharra dauka, bizirik jarraitzeko. Aipatu dozuzen ekintzak erramintza bezela ikusten ditut hala ere, herrixa eta mendixa alkartzeko erramintzak. Mendira urreratziak gauza on asko ekarri dizkigu, eta onura hori ingurukuei elkarlanian sentiarazteko bide bat besterik ez da nere ustez.

Onura hórren artian bi aittatuko nittuzke bereziki. Lehenengua ingurua maitatzia eta errespetatzia. Mendixakin zenbat eta harreman haundixagua euki, orduan eta gehixago maitatu eta errespetatzen dot. Maitatzeko modu asko daude, jakiña. Batzuk onura material bat ateratzen diuelako maitte dabe mendixa, baiña mendizaletasunak beste ikuspegi bat ematen digu. Askotan, guztiz bo-

teretsu ikusten dogu, eta beste batzutan, hauskor. Bere haundittasunian maitatzen ikasi dogu, baina baiña babesten ere.

Bigarrena elkarlanaren baliua izan da. Hemen ikasi dot 1+1 bi baiño gehixago dirala. Mendixan beste iñun baiño argixago ikusi dot alkarri lagunduta urrutirago allegauko garala, alkarri kontra eginda baiño. Ematen dau egunerokuan ondokua baiño hobia izatian daguala arrakastia. Mendixan, berriz, laguna zenbat eta azkarragua eta indartsuagua izan, hobe, berarekin zenbat eta elkarlan hobia euki, hobe. Helburua lortzeko aukera askoz ere haundixaguak ematen dizkigu horrek, eta gaiñera aurkarixa biharrian laguna daukagu biñe lagun. Maitte dozun lekuan, gustoko dozuna eitten eta gaiñera lagun dozun jendiarekin; ba al da hori baiño gauza hoberik? Iba Morkaikok beste 72 urtian hónek baliuok eta beste batzuk zabaltzen laguntzen daban.



BARREnek ez du nere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako enantzunkizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NAN eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.eus

► AHT-REN DIRUTZAK

Abuztuan kasu askorik egin gabe pasatzen diren berri horietako batek atentzioa eman digu: Espainiak EAE eta Nafarroarentzat gorde duen diruaren erdia baino gehiago AHTren obretarako izango dela eta aurrekontuaren igoeraren %80 Euskal Y-ak jasoko omen duela.

Gure ustetan badaude hori baino lehenetsun sozial handiagoak, are gehiago, zulo handi hau sekula ez den errentagarria izango.

AHT egiteko argudio nagusiak garapena, aberastasuna, lan aukerak direla entzun izan dugu, baina hauek omen dira langileen baldintzen adibideak:

-12 orduko lanaldia astelehenetik larunbatera: 1.300 euroko soldata.

- Hilabeteko topografo lana, 10 orduko lanaldiarekin, 900 euro gordin.

ELAk jarri zuen salaketak zioen erakuntzako lan hitzarmena urratu zutela, hamabi orduko gorako lanaldiak «ohi-

koak» direla eta batzuetan hamazazpi orduko lanaldiak daudela.

Lanaldiak luzatu beharrean, zortzi ordutik beherako ordutegia behar zela ohartarazi zuen; lan bereziki toxiko edo arriskutsuetan lanaldia %20 eta %30 artean laburtu behar zela.

AHT eraikitzeke obretan gutxienez zazpi lagun hil dira azken bost urteetan, eta beste zenbait zauritu dira.

Ez dugu uste inor ezustean harripatu duenik. Artikuluan aipatzen den bezala, AHTko lan baldintzez genekiguna idatzita ikustea baino ez da izan hau (ikus informazioa barren.eus atarian, Okil Beltzen txokoa).

Okil Beltzak

ESKUTITZEI BURUZKO ARAUDIA

BARREn edozein gutun argitaratu ahal izateko, honako baldintza hauek bete behar dituzte:

1. Eskutitz guztiak identifikatuak egon behar dute: izen-abizenak, telefono zenbakia eta NAN zenbakia derigorrezkoak dira.
2. 1.500 karaktere izan behar ditu gehienez eskutitzak.
3. Eskutitzak izen-abizenen inzialekin edota izen-abizenekin argitaratu dira. Ezizenarekin ezingo dira sinatu gutunak. Onartu egingo ditugu identifikagarriak diren taldeak: "Ikastolako irakasleak", esaterako. Bestalde, sinatzailearekin batera beste lagun batzuk ere daudenean, hauek ere identifikatuta egon behar dute.
4. Pertsona eta erakundeek gutun-egilearen izen-abizenak jakiteko eskubidea izango dute gutun horretan euren izena aipatu edo erreferentziaren bat egiten bada eta gutuna inzialekin sinatuta badago.
5. Ez dira onartuko: birakoak, gutun iraingarriak eta errespetu faltaz idatzitakoak, buzzoneatzeko edo kale banaketa egiteko idatzitako idazkiak, pertsona eta erakundeek zuzenduriko mehatxuak...
6. Ez dugu gaztelez datarren eskutitz argitaratuko.



BARREN

ARGITARATZAILEA:



ELGOIBARKO IZARRA
Euskarazko Informatika

Kalebarren plaza, 2 20870 ELGOIBAR - 943 744 112 - barren@elgoibarkoizarra.eus
www.barren.eus
Publizitatea: 943 743 704 - barren.publi@elgoibarkoizarra.eus

BARREnek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. BARREnek ez du bere gain hartzen Iritzia, Zozoak Beleari eta eskutitzak ataletan adierazitako enantzunkizunik.

KOORDINATZAILEA Ainara Argoitia KAZETARIAK Asier Orbea, Ainara Argoitia, Irati Agirreazaldegia HIZKUNTZA ARDURADUNA Ainara Argoitia
PUBLIZITATEA Leire Rubio, Leire Alberdi MAKETATZAILEA Zalao Arnaiz ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA Aitor Lauzurika ADM-
NISTRARIAK Amaia Arrizabalaga, Nerea Osoro KOLABORATZAILEAK Garazi Ayesta, Nora Hadi, Ibon Serrano, Arkaitz Irueta, Nora Kor-
taberria, Nerea Gurrutxaga, Andoitz Agirregomezkorta, Abel Arriaga, Inma Mugertza, Ander Izagirre, Ana Alberdi, Eneko Iturbe,
Javi Muñoz, Rafa Furnier, Eire Vila, Mikel Olaizola, Manu Sanchez, Unai Villena, Iosu Juaristi, Ainhoa Lendinez, Iñigo Lamelas, Jose
Luis Azpillaga, Julen Ansola, Eider Iriondo, Edurne Izagirre, Alain Ulazia, Enez Ezenarro, Jesus Jimenez, Mikel Artola, Iñaki Odriozola,
Ander Mujika, Ander Soraluze. INPRIMATEGIA Gertu Koop.E. TIRADA 4.860 ale LEGE GORDAILUA SS-1.038/92 ISSN 1138-1855

LAGUNTZAILEAK:



elgoibar
bizirik



28

Gazteen EGUNA

SANBARTOLOMEAK 2015

Argazkiak eta bideoak: www.barren.eus







28
GAZTEEN
EGUNA



29

Baserritarren EGUNA





30

Jubilatuen eta umeen

EGUNA








SOKA MUTURRA







SOKA MUTURRA



Elgoibarren banatu dituzte Urruzunotarrak gehituz literatura lehiaketako sariak



Astelehenean banatu zituzten Urruzunotarrak gehituz literatura lehiaketako sariak, Elgoibarren. Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak sortu zuen lehiaketa hau DBHko, Batxilergoko eta Erdi Mailako Heziketa Zikloetako ikasleentzat, eta aurten, 118 lan aurkeztu dituzte guztira. Epaimahaia, berriz, Castillo Suarez, Katixa Agirre, Leire Bilbao, Miren Agur Meabe eta Urtzi Urrutikoetxeak osatu dute eta haiena izan da hogei lan onenak aukeratzeko ardurua [Sarrituen artean ez dago elgoibartarrik, baina, zerrenda osoa www.barren.eus gure webgunean daukazu ikusgai].

Lan irabazleak Sagastiberri saileko liburuxka batean jaso ditu Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak eta diploma batekin batera eman zieten ikasle sarituei. Sari banaketa ekitaldian, Elgoibarko alkate Ane Beitiak, Hezkuntza berrizatzeko zuzendari Begoña Garamendik, Hezkuntza Saileko euskara zerbitzuburu Mari Jose Arrietak eta Euskal Idazlen Elkarteko presidente Jasone Osoro elgoibartarrak parte hartu zuten.

2016ko egutegirako argazkiak aurkezteko epea urriaren 16an amaituko da

Elgoibarko kultura, artea eta ondarea izango da 2016ko egutegirako gaia, eta urriaren 16an itxiko dute argazkiak aurkezteko epea. Herritar bakoitzak gehienez sei argazki aurkeztu ahal izango ditu. Elgoibarren jaio, bizi, ikasi edo lan egiten dutenek aurkeztu ahal izango dituzte lehiaketara, eta argazkiak Elgoibarkoak izan beharko dira.

Lanbroako terraza aurrean eraman du auto batek

Herriko Antzoki aurreko oinezkoen gunean sartu zen auto bat eguazten arratsaldean eta aurrean eraman zituen Lanbroa tabernako terrazako mahai eta aulkiak, farola bat gero eta jarleku bat. Zorionez ez zen zauriturik izan.



Luis Elustondo Gorriti

Mallorta baserria

2015eko ekainaren 30ean hil zen, 88 urte zituela. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



Luisa Aierdi Iriondo

2015eko abuztuaren 15ean hil zen, 90 urte zituela. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.

Zure ondoan bizitza pozgarria izan da. Ez zaitugu ahaztuko





“Emakumea ala gizona izan, txarangaren onerako da jende berria sartzea”

▶ AINHOA UGALDE JAUREGI MAUXITXA TXARANGAKO SAXOFOI-JOLEA

Oporrak bukatu eta askorentzat martitzenean hasi zen ikasturtea. Bat baino gehiago Mauxitxa txarangaren doinuekin esnatu zen lanera joateko. Jaietan lan handia izan dute musikariek eta horietako bat da Ainhoa Ugalde Jauregi (Elgoibar, 1999). Aurten estreinakoz aritu da sanbartolomeetan Mauxitxan beste bi saxofoilari berrirekin eta aurrez neska-
ren bat edo bestek jo badute ere, ofizialki bera da txarangako lehen emakumezkoa. Saxofoi altua jotzen du eta Elgoibarko Musika Eskolan ez ezik Donostiako konserbatorioan dihardu gradu profesionaleko ikasketak egiten, eta osagarri gisa, pianoa ere ikasten du.

- IRATI AGIRREAZALDEGI -

♦ Nola hasi zinen Mauxitxan?

Umetatik gustatu izan zait txaranga eta noizbait Saxofoiko irakasle Aitor Novari komentatu nion gustatuko litzaidake-ela jotzea. Bi saxofoi-jolek txaranga utzi zuten, eta Novak egoki ikusi ninduen postu horretarako. Ordura arte ez zen emakumerik egon txarangan –noizbait bat edo bestek kalejiretan instrumenturen bat hartu izan badu ere–. Harritu egin ninduen neskek ez egoteak, dena dela, nik lata pixka bat eman nuen sartzeko eta ez zait axola lehena izatea.

♦ Aurtengo sanbartolomeetan egin duzu estreinua txarangan.

lazko udan entseguetan hasi nintzen eta aurten kanpoko saioaren batean jo izan dut, Etxeberrin eta Donostiako danborradan, adibidez. Txiki Egunean, Murrumendiaraz gozodendan pastel bandeja ateratzen digute eta txarangako hasiberriei *karolina* aurpegira botatzeko ohitura dago. Horrela egin didate ongi-etorri ofiziala. BARRENEN txarangakoen



argazkiak ikusi izan ditut merengez beteta, baina niri tokatu eta ez zidan denborarik eman koleta egin eta saxofoia beste norbaiti emateko ere. Hala ere, umorez hartu beharreko kontua da.

◆ Txaranga kanpotik entzutek barruan egotera pasatu zarenean zer sentitu duzu aurtengo jaietan?

Kanpotik inbidia nien txarangakoei. Txiki Egunean, Errosario kalean eta plazan, edo buruhandiekin... ni kanpoan dantzatzen nuen txaranga barruan, zein ondo pasatzen zuten ikusita. Baina nire adinarekin, ez dut denbora askorik izan txaranga kanpotik guztiz disfrutatzen. Beste kideek aurrez esan zidaten oso ezberdina dela jaiak txaranga barruan edo kanpotik bizi izatea. Bestelako plana da, bai, egunero izan baitugu zerbaite: diana, kalejira, bazkaria, hamaiketakoak, buruhandiekin saioa... Jende berria ere ezagutu dut. Barrutik ikusi dut benetan polita dela. Asko gustatzen zait musika eta saltsa hori, beraz, oso gustura nago.

◆ Zer da Mauxitxa txaranga zuretzat, hasiberri zaren honetan?

Lagun talde handi bat. Ez nuke esango niretzat familia bat denik –hamar urtez bertan dabilenak agian bai–, baina pixkanaka gertuko sentitzen ari naiz. Oso jatorrak dira, eta ez didate sekula aurpegi txarrik jarri. Ni oso irekia naiz eta ez dut jendearekin harremanetarako inolako arazorik. Banekien txaranga ere hala izango zela, baina hasieran beldur pixka batekin joan nintzen.

Nik saxofoi bat eman diot txarangari eta berak, lagunez gain, beste gauza asko. Orain arte musika klasikoa landu dut gehiago, eta hau beste mundu bat da. Musika Eskolan edo Donostiako Kontserbatorioko kontzertuetan saxofoi taldearekin jo izan dut, baina txaranga instrumentu gehiago daude. Bandan jotzen dut, eta han ere hala da, baina hangoa beste musika estilo bat da, serioagoa.

◆ Ofizialki zu zara txaranga lehenengo emakumea. Entzun al duzu komentariarik horren harira?

Kalean zoriandu naute txaranga lehen neska naizelako. Bestalde, entzun ditut ‘neska bat txaranga?’ edo ‘neska bat bakarrik txaranga?’ komentarioak. Baina nik txaranga sartu nahi nuen, mundu hori ezagutu nahi nuen, eta horrelakoei ez diet garrantziarik eman.

Emakumea ala gizona izan txaranga onerako da jende berria sartzeari, are gehiago instrumenturen bat falta denean. Ni iritsi naiz eta ni bezala beste asko ere sartuko dira; hala nahi dut gainera. Ez emakumeen babesa behar dudalako, baizik eta emakumeok ere hemen gaudelako eta txaranga parte hartzeko eskubidea

Orain arte musika klasikoa landu dut gehiago, eta txaranga beste mundu bat da

dugulako. Horrek ez du esan nahi gero denok neskak izan behar garenik, baina musikariren bat behar denean neska izatea ez litzateke oztopo izan behar. Musikan ona denari probatzeko aukera eman behar zaio, berdin dio emakume edo gizonetako izan.

Orainoz ez dut uste beharrik dagoenik, baina momentua iritsiz gero, ez dut uste inongo arazorik egongo denik. Gero eta jende gazte gehiago gaude, eta batzuk irten ahala berriak sartuko dira eta pixkanaka gauza berriak ikasiko ditugu. Guri ere noizbait iritsiko zaigu erretiroa hartzeko eguna, baina hasi berri garenez bide luzea dugu egiteko eta anekdota asko bide horretan barrena uzteko.

◆ Txiki Egunera itzulita, gero eta beranduago bukatzen da txaranga kalejira. Jendeak dio noizbait iluntzean bukatzea iritsiko dela.

Noiz, txaranga bertan ere, hitz egin izan dugu gai horri buruz, baina erabaki zehatzik sekula hartu gabe. Esaterako, ur-

teren batean esandako orduan bukatuz gero, hurrengo urtean jendeak ez luke esango plazara beranduago joango dela han aurkituko gaituelako. Baina guk ere gozatzen dugu eta beranduago amaitzearen arrazoia txiki bat hori ere bada. Gainera, batzuk erretiratu eta instrumentuak gorde bitartean badira txaranga kideak plazan jarraitzen dutenak, beraz, zaila da egun berezi horri neurri zorrotzak jartzea.

Aurten, nire lehen urtea izanik, asko nekatu naiz. 19:30ean bazkaldu genuen, gorputza ahul, ia barbarik egin ezinda. Baina gozatu ere egin dut.

◆ Musika duzu zaletasun. Horrez gain, aisialdia zertan ematen duzu?

Musikak hartzen du nire aisialdi guztia; ordu asko ematen ditut hortan. Aurten ere Elgoibarko Musika Eskolan jarraituko dut. Hemen hasi nintzen saxofoia jotzen eta uzteak pena ematen dit. Donostiako kontserbatorioko gozatu arren, gradu profesionalean ari naizenez ikasketak zorrotzak dira. Hemengoak, lasaiagoa da, beste gauza batzuk lantzen ditut, eta horrek on egiten dit.

◆ Zein musika mota duzu gogoko?

Edozein musika mota entzun dezaket: trikitixa, bibolinen doinu klasikoak, Heavya, popa, dena. Jazza ere gustuko dut baina ez jotzeko, entzuteko. Etxean batik batik musika klasikoa entzuten dugu, eta baita euskal musika ere. Aita oso musika zalea da.

◆ Beraz, musikarako zaletasuna etxetik datorkizu.

Etxean pianoa, bi gitarra –bat elektriko–, flauta, bibolina, bi saxofoi... musika tresna pila bat dauzkagu. Nire aitak denarik jotzen du, berdin dio zein musika tresna, baina etxetik kanpora ez du jotzen. Orain dela gutxi kontatu dit noizbait Ondarruko txaranga jo zuela tronpetari. Inauteriak baino hiru hilabete lehenago esan zioten, eta tronpetarekin eskala bat nola jotzen den irakatsi, jo beharreko piezak prestatu eta horrela irten zela kalera. Beraz, etxeko eragin hori nabarmena da. Nire neba ere saxofoia ikasten hasi zen, baina utzi zuenean nik hartu nion lekua.

“Ez nator lehendik ondo egindako ezer apurtzera”

▶ **MIKEL IRIZAR** GIPIZKOAKO HIZKUNTZA BERTINTASUNERAKO ZUZENDARIA



Euskalgintzan jarduna da Gipuzkoako Hizkuntza Bertintasunerako zuzendaria, Mikel Irizar (Ormaiztegi, 1954). Debagoiengan toki hedabideak bultzatzeagatik nabarmendu da, lanbidea Kutxan izan duen arren. Erakunde horretan euskararen normalizazioaz eta komunikazioaz arduratu zen eta Kutxa Fundazioko zuzendari albokoa izatera heldu zen. Tokikomeko bultzagile eta lehen presidente izana da. Elkarrizketa osoa: www.barren.eus-en.

- TOKIKOM -

kara Zuzendaritzatik Hizkuntzen Bertintasunerako Zuzendaritzara. Zergatik?

Euskarak behar ditu euskaltzaleak, jakina, baina fokua euskararen eta euskaltzaletasunean bakarrik jartzea mugatua da. Euskarak behar du diskurtso irekiago edo inklusiboagoa, demokratikoagoa. Gizar-tean edonork partekatzen dituen balioen gainean eraiki behar dugu hizkuntzen bizikidetzaren aldeko diskurtsoa.

♦ Bizikidetzara, zelan?

Hiru ardatzen gainean. Bata, askatasuna. Pertsoneri aitortu behar zaie arautu gabeko esparruetan hizkuntza hautatzeko eskubidea dutela. Bigarrenez, hautuen arteko berdintasuna behar da, bestela, askatasun faltsua litzateke-eta. Ulermenaren kontua jarri behar da erdi-erdian. Denok daukagu ondokoa ulertzeko ardura. Bertintasunak eskatzen du oreka. Gipuzkoan bi hizkuntza ofizial daude. Baina horietako batek, gaztelaniak, ditu 500 milioi hitzun eta, gainera, legez derrigorrez jakiteko beharra gaztelaniari aitortzen zaio, ez euskarari. Kasu horretan, berdintasuna lortzeko hizkuntzen arteko oreka lortu behar da, eta, horretarako, Gipuzkoako erakundeek eta eragileek egin behar dugu esfortzua euskarak eduki ditzan berrezko esparruak, eta esparru horietatik eragina eta prestigioa emateko euskarari.

♦ Hirugarren ardatza?

Justizia. Bizikidetzara justiziaren gainean oinarritu behar da. Euskararen kasuan, ez dugu ahaztu behar, esaterako, nik neuk gaztelaniaz ikasi behar izan nuela, euskara debekatuta zegoelako. Baliabide asko jarri zen euskararen kontra; orain, legezkoa eta justiziazkoa da euskararen alde jartzea baliabideak.

♦ Zigor Etxeburuak utzitako lekuan diharduzu lanean. Baduzu haren politikak jarraitzeko asmorik?

Etxe honetan badago ardatz bat hizkuntzaren gaian oso atzetik datorrena eta eten handirik izan ez duena. Lehenago egon diren euskara zuzendariak ere metatu dute aurrekoek egindakoa. Ñabardurekin, erritmo ezberdinekin, hobekuntzekin... baina koherentzia batekin. Ez nator lehendik ondo egindako ezer apurtzera. Egongo dira egokitzapen batzuk edo ñabardurak, baina jarraituko dugu lehengo ildotik.

♦ Sailaren izena aldatu egin da: Eus-

♦ Zer berritasun dakarzu?

Berritasun nagusia begirada luzatzea litzateke. Estilo kontua izan daiteke. Ormaiztegin jaio garenok badakigu zubiak zenbateraino diren garrantzitsuak eta sozialki Debagoienean hazi garenok lankidetzaren ere zein garrantzitsua den badakigu.

♦ Euskalgintzaren diskurtsoak ere berritu behar dira?

Bai. Franco hil ostean, argi geneukan tapoia irekitzea nahikoa izango zela berez hizkuntza haz zedin. Gero, trinkotze diskurtsoak eraiki behar izan genituen. Gutxienez, euskaldunak eta euskaltzaleak identifikatzeko. Gaur egun, oster, beharrezkoa da diskurtsoa modu inklusiboan osatzea. Euskalgintzaren zeregina, funtzionamendua, berrikusi beharra dago. Mundua aldatzen doa, Gipuzkoan ehun hizkuntzatik gora hitz egiten dira... Hizkuntzen arteko bizikidetzak eskatzen ditu molde berriak.

♦ Diozu urte onak izan daitezkeela euskararen berreskuratze prozesuetarako eta normalizaziorako. Zergatik?

Egin den inbertsio handi bat, une honetan, ez delako bistaritzen. Baldintza berriak behar ditugu. 800.000 euskal hiztun egon bagaitzke, esan nahi du euskarak gaur duena baino presentzia handiagoa izan dezakeela esparru gehiagotan. Zer falta zaigu? Hori da ikertu beharrekoa. Baina, adibidez, ulermenaren kontua bada modu bat euskaldunok euskaraz gehiago egin dezagun. Euskal hiztunak ez izan arren, hizkuntza ulertzen dutenak euskarara batzen baditugu, euskaldunok askoz ere leku gehiagotan egingo genuke euskaraz eta euskarak izango luke ikusgarritasun handiagoa.

♦ Izan dira pauso batzuk hedabideekiko egin beharreko prentsaurrekoetan eta. Zein izango da hurrengo lau urteetako hizkuntza politika adierazpenei begira? aldibereko itzulpena?

Hor ere urratsak egin dira. Soziolinguistikaren gidaritzapean Eralan prozesua egin da Foru Aldundia partaide izan delarik. Lidergoaren ikerketatik hasi zen,

baina jendaurreko ekitaldietan edota prentsaurrekoetan zelan jokatu behar den ere aztertu da hizkuntza berdintasunaren mesedetan. Erakundeetatik erreferente izatea inportantea da hiztunen aurrean. Portaera bat adostu nahiko genuke, protokolo bat, eta atxikiko direnak erakundeak, Foru Aldundia eta Donostiako Udala izango dira lehenbizi, baina baita gainerako erakunde, talde eta alderdiak ere.

♦ Zenbat diruko poltsa kudeatu beharko duzu?

Zuzendaritzan, diru poltsa osoa, barne gastua kontuan hartuta, bost milioi eta erdiaren bueltan dago.

♦ Aurrekontu osoaren %1era iristen da kopuru hori?

Ez, azpitik dago. 600 edo 700 milioiren artean dago Gipuzkoako Foru Aldundiaren aurrekontu osoa. Nik planteatu dut baliabide gehiago eskaintzea. Dena den, diru poltsa handiagoa izango bagenu, bideratu nahiko genuke gauza berriak egiteko. Modu eraginkorragoan.

♦ Euskarak ere ez ditu batu izan instituzioak eta eragile sozialak. Zer diozu?

Oso aukera ona daukagu aurrerapausoak egiteko. Gauza izanez gero gizarte ekimena eta erakundeena ondo uztartzeko, aurrerapausoak egingo ditugu. Horretan jardungo dut buru-belarri.

♦ Zuk Topagunean euskalgintzako eragile jardun izanak lagun dezake euskararen inguruan eragileen eta instituzioen arteko harremana ontzen?

Kargu honetarako izendatu nautenek hori bilatu dute. Borondatea badago.

♦ Erronka handienetakoa gazteen hizkuntza ohituretan egon daiteke?

Egin den inbertsiorik handiena hezkuntzan egin da. Baina gazteak ez dira giza talde isolatua, ajeak errepikatzen dituzte. Errefortzu lanak planteatu daitezke, eskolaz kanpo ere euskara erabil dezaten. Eskolaz kanpo euskaltzalea da leloa eta gakoa. Aisialdia, kirola, kultura, sorkuntza... horietan jardun behar dugu. Eskolan egindako inbertsioa, eskolaz kanpokotik errentagarri izan dadin, egitasmo integrala osatzea da erronka.

♦ Eta erabilerari erreparatuta... ulermena da gakoa norberak gura duen hizkuntzan jarduteko?

Gipuzkoan euskara tutik ere ulertzen ez duen oso jende gutxi dago. Baina badago profil bat, zerbait ikasten hasi eta utzi egin duenarena. Besteek gaztelan egitea eraso moduan hartu izan dugu askotan euskaldunok. Baina aitortzen baditugu euskaraz ez dakien horri gaztelan egitea eskubidea dela, prezioa kentzen diogu. Hortaz, jendea galdetzen baditugu ea ulermena erabiltzeko prest dagoen, emaitza onak lortuko ditugu. Batzar baten euskaraz ez dakienari onartzen baditugu gaztelan erantzuteko aukera, hark onartuko digu batzarra euskaraz egiteko aukera.

♦ Tokikomen presidente izana zara; baina zeintzuk dira komunikabideen erronkak Aldunditik begiratuta?

Aldatzen da tokia, baina ez ikuspegi. Euskarazko hedabideen erronka da ahalik eta eraginkorrenak izatea, oso tresna inportanteak direlako jendea euskararekin zaletzeko edo, gutxienez, euskarara hurbiltzeko. Alde horretatik, toki hedabideek izugarrizko lana egin dute. Jende askok entzun, ikusi edo irakurri dituzten lehen berbak bere herriko edo eskualdeko hedabideetan. Toki hedabidea iristen da beste guztiak ailegatzen ez diren tokietara eta besteek ez duten karga emozionalaren bidez. Irismen handia dute.

♦ Hizkuntza Legearen gaiari eman zaio garrantzia. Nola ikusten duzu?

Legeak beharrezkoak dira. Lege babesak ahalbidetzen ditu hainbat gauza, baina legea ez da berme bat. Legeak aukera ematen du gauzak egiteko, baina gizarte indarrak ez bada, legeak bakarrik indar txikia du. Baliabide juridikoa da legea. Baina ez naiz aldaketak legetik egitearen oso zale. Iruditzen zait jarrerak aldatu behar direla lehenbizi. Jakina, legeak horretan lagun badezake, ez dago problemarik. Legeak herri borondatearen ondoren etorri behar du. Dauden legeekin gauza asko egin daitezke.

LANA.....**Eskaerak**

Adinekoak zaintzeko edota etxeko lanak egiteko prest.

☎ 632 767 696

Nagusiak zein umeak zaintzeko edo taberna, jatetxe edo etxeetan garbiketarako egiteko prest. Fruta saltzen eta sailkatzen ibilitakoa.

☎ 667 301 325

Bi katakume oparitzen ditut. Maiatzean jaiotakoak dira; grisak.

☎ 943 740 687 / 629 434 161

Etxeko garbiketarako edota pertsona helduak zaintzeko prest. Orduka nahiz internan moduan lan egiteko prest.

☎ 631 681 516

Nagusiak zein umeak zaintzeko edo garbiketarako lanak egiteko prest.

☎ 634 209 087

Nagusiak edo umeak zaintzeko, garbitasun lanak egiteko edo zerbitzari lanak egiteko prest. Orduka.

☎ 632 879 419

Orduka zaintza lanak egiteko prest. Sukaldari laguntzaile ere egingo nuke lan.

☎ 622 617 624

Nagusiak edo umeak zaintzeko prest. Interna nahiz externa.

☎ 633 236 528

Neska eskaintzen da umeak zein nagusiak zaintzeko eta garbiketarako lanak egiteko.

☎ 667 897 002

Neska eskaintzen da umeak zein nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko.

☎ 685 724 861 / 943 748 899

Ingeles eskolak ematen ditut, etxez etxe.

☎ 943 744 062

Umeak zaintzeko nahiz ingeles eskolak emateko prest. Euskalduna naiz.

☎ 608 686 814

Adinekoak zaintzen edo etxeak, elkar-teak nahiz tabernak garbitzen egingo nuke lan.

☎ 631 098 995

Nagusiak nahiz umeak zaintzeko nitzke. Era berean, sukaldari laguntzen edo garbiketarako lanak egiten arirezko prest.

☎ 631 562 380

Atariak garbitzeko prest.

☎ 617 571 210

Etxeak zein lokalak garbitzeko prest. Esperimentazio daukat.

☎ 639 423 493

Garbiketarako lanetarako eta adineko jendea zaintzeko prest nago.

☎ 638 338 816

Eskaintzak

Emakumea behar da umeak zaintzeko. Aukeran, autoa badu hobea.

☎ 610 285 315

Emakume euskalduna behar da asteleheneretik ostiralera, goizetan, 7:30etik 10:30era, gure bi semeak ikastolara eramateko eta etxeko lanak egiteko.

☎ 665 727 979

ETXEBIZITZAK.....**Alokairua**

Etxea hartuko nuke alokairuan Elgoibarren. Bi logelatakoa. Gehienez 400 euro ordaindu ditzaket hilean.

☎ 631 252 750

Etxea hartuko nuke alokairuan Elgoibarren. Hiru logelatako etxea izatea komeni zait.

☎ 631 098 995

Etxea hartuko nuke alokairuan Elgoibarren. Hilean 450-500 euroraino ordaintzeko prest.

☎ 661 064 027

Elgoibarko bikote nagusi batek etxea hartuko luke alokairuan Elgoibarren bertan, erdigunean. Igogailudun etxea izan behar da.

☎ 669 339 529

OSPAKIZUNAK

1945. urtean jaiotakoekin kinto bazkaria egingo dugu urriaren 3an Sigma jate-txean. Interesatuak 50 euro sartu behar dituzte irailaren 30a baino lehen Euskadiko kutxako (Caja Laboral) kontu korronte honetan: ES80 3035 0007 25 0071 131384. Elizkizunarekin hasiko dugu eguna, 13:00etan Santa klarako elizan. Bazkaria 14:30ean izango da, eta bazkalarretik taldeko argazkia aterako dugu. Oharra: Diru-sarrerara egiteko orduan eraman kontu zenbakia.

BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK:

Etxebizitzak, garaieak eta lokalak: 15€ (alokairua) - 20€ (salmenta). Autoak saltzea: 15€. Bestelakoak: 8€. Iragarkiarri erretiratua jarritz gero, 5€ gehiago ordaindu behar dira.

Merkatu txikiko iragarkiak hiru astez argitaratzen ditugu. Salmenta eta alokairu iragarkiak ordaindu egin behar dira.

Etxebizitzak, garaieak eta lokalak: 18€ (alokairua) - 22€ (salmenta). Autoak saltzea: 18€. Bestelakoak: 10€. Iragarkiarri erretiratua jarritz gero, 6€ gehiago ordaindu behar dira.



P. M. Urruzuno kalea, 6 behea - Elgoibar

☎ 943 743 140 - rosapf@telefonica.net



Eraikin berri bateko sustatzaileak, bizilagun elkartekooi eskatu digu ordaintzeko ibiari, ur eta argi horniduren altari, igogailuko telefonoaren altari dagozkion tasak eta igogailuaren fakturak. Jakin nahi nuke zein faktura ordaindu beharko lituzkeen bizilagun elkar-teak eta zein sustatzaileak.

Legeak dio sustatzailearen eginbeharra dela derrigorrezko administrazio-lizentziak eta baimenak kudeatzea eta lortzea. Bere ardura da baita ere egindako eraikina jaso deneko akta egitea eta eraikina jaso dutenei lanen inguruko agiriak edo administrazioak eska ditzakeen bestelako dokumentuak ematea.

Bestalde, sustatzaileak etxebizitza jabeen ezinbestean eman behar dizkie etxebizitza eraikitze beharrezkoak diren legeko baimen galdagarriak; hirigintza-zedula edo eraikinaren hirigintza-egoera egiaztatzen duen agiria; eta etxebizitza, guztientzako gune eta beharrezko zerbitzuak erabiltzeko lizentzia.

AHOLKUA: Bizilagun elkarteari dagozkion eta honi emango zaizkion zerbitzuak martxan jaritzeko beharrezko tasak eta gastuak, etxebizitzaren sustatzaileak ordainduko ditu eta ez jabeen elkar-teak.

ROSA M^a PINTADO: Etxaldean Administrazioarako-Gradu ikasketen arduraduna Alcalá de Henaresko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749



administradores

Consejo Vasco de Colegios de Administradores de Empresas
Iruñeko Pasa Administrazioaren
Lizentziatua



Argazkiak eguzten eguerdia (12:00etarako) baino lehen ekarri behar dira
BARRENeko bulegora, edo barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara bidali.



Ongietorri, **Sara Leonardo Lopez**. Uztailaren 22an jaio zinen. Zure guraso Gorkak eta Rebekak eta ahizpa Anek.



Zorionak, **Añes**. Osatu duzu eguzkiaren inguruan bederatzigarren buelta! Muxu handi bat familia osoaren partez.



Zorionak, **Luken!** Uztailaren 31n 7 urte egin zenituelako! Muxu erraldoi bat.



Zorionak, **Enaitz!** Bihar 5 urte, mutil handi! Ondo pasa, gurasoen, arreba Juneiren eta lagunen partez. Muxu bat.



Zorionak, **Aiora**, zapatuan 6 urte beteko dituzulako. Etxekoen partez, muxu handi bat.



Zorionak, **Mikel**. Hilaren 8an 7 urte beteko dituzulako. Muxu handi bat familiako guztien partez.



Zorionak, **Iraia**, asteazkenean 2 urtetxo bete zenituelako. Muxu bat etxeko guztien partez eta bereziki neba Oinatzzen partez.



Zorionak, **prinzesa!** Mila kilo zorian Gorka eta etxekoen partez.



Zorionak, **Nagore**, gaur 8 urte beteko dituzulako. Muxu handi bat familiako guztien partez, bereziki Paularen partez.



Zorionak, **Saretxo!** Azkenean heldu da eguna. 6 urte! Muxu handi bat etxekoen partez, mari-sorgin.



Zorionak, **Alex maitea!** Zein ondo pasatu dugun udan eta zure zortzigarren urtebetetzean.



Zorionak, **Saioa**. Oso ondo pasatu genuen elkarrekin zure laugarren urtebetetzean! Zorionak bereziki Oihanaren partez.



Zorionak, **bikote!** Primeran pasa zuen egunean eta izan zaitezela zoriontsu. Zuen koadrilakoek.

Erretratu bakarreko agurra: 4'50€. Argazki bikoitza: 7€. Hirukoitza: 9€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 15€


ELGOIBARKO IZARRAKO BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK:

Erretratu bakarreko agurra: 3'50€. Argazki bikoitza: 6€. Hirukoitza: 8€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 12€



Andresa Izagirre Badiola

2015eko irailaren 1ean hil zen, 91 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



Pilar Alberdi Araquistain

Miguel Diego Aranbururen alarguna

2015eko uztailaren 27an hil zen.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



6 DOMEKA

20:00 Mintxetako igerilekuen itxiera. 10:00etatik 20:00etara egongo dira irekita. Eguneko sarrera 6 euro (4 euro 18 urtetik beherakoentzat).

7 ASTELEHENA

16:30 Ludotekaren irekiera. Astelehenetik barixakura 16:30etik 19:30era.

17:00 Mendaroko Ameikutz Musika Eskolako ikasturte hasierako bilera, musika eskolan bertan. Ordutegiak banatzeko bilera.

9 EGUAZTENA

17:00 Gaztelekuaren irekiera. Martitzenetik domekara 17:00etatik 20:00etara.

11 BARIXAKUA

18:30 Juan Armentia argazkilariaren *Zetazko Gerlariak* erakusketa. Kirolari paralinpikoen argazkiak izango dira ikusgai Kultur Etxeko erakusketa gelan, astelehenetik zapatara, 18:30etik 20:30era. Antolatzailea: Ongarri Argazki Taldea. Laguntzailea: Saiatu Fundazioa. Irailaren 26ra arte.

Botika ordutegiak

09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

Guardiak

09:00 - 22:00

4 Barixakua FERNANDEZ

5 Zapatua YUDEGO

6 Domeka YUDEGO

7 Astelehena

ORUESAGASTI

8 Martitzena

BARRENETXEA

9 Eguaztena IBAÑEZ

10 Eguena YUDEGO

11 Barixakua ETXEBERRIA

22:00 - 24:00

Astelehenetik igandera

GARITAONANDIA

24:00 - 09:00

ELORZA (Eibar)

Juan Gisasola, 18

Tel.: 943 206 100

* Fernandez:

Herriko enparantza 4,

Garagartza (Mendaro)

Tel.: 943 756 142

* Ibañez: Rekalde, 1

(Soraluze)

Tel.: 943 751 638

* Oruesagasti:

Kalebarren, 9 (Soraluze)

Tel.: 943 751 384

San Antolin jaiak

IRAILAK 4, BARIXAKUA

19:00 Jaien hasiera. Txapligua botatzea, X. Txapel jaurtiketa eta VIII. Oliba jaurtiketa lehiaketak.

20:00 Triki-berto kalejira. Trikitilariak: Mugu panderoa taldea, eta bertsolariak: Iker Zubeldia eta Julio Soto.

21:00 Aureskua. Jarraian, berto afaria. (Afarirako txartelak Usatorre tabernan salgai: 25 euro).

Gero, Berto-saioa eta erromeria.

02:00 Txokolatada.

IRAILAK 5, ZAPATUA

17:00 Arriagako VI. mus txapelketa.

17:00-19:00 Umeentzako jolasak eta sorpresak, Atxutxiamaiakako begiraleekin.

17:30 Trialsin erakustaldia: Aitor Murua.

18:00 Patata-tortilla lehiaketa.

19:00 Taldekako desafioa. Kirol probak eta jolasak. Antolatzaileek afaritara gonbidatuko dituzte partehartzaile guztiak.

21:00 Afaria. Prezioa: 15 euro, edaria eta kafea barne.

Jarraian, gaztaren pisua nork asmatu joko.

Ondoren, erromeria, Laja eta Mikel trikitilariekin.

01:00 Errifaren zozketa. 1. saria: Kanarietarako bidaia bi lagunentzat. 2. saria: Janariz eta edariz betetako karretila eta goizaldean, sorpresa.

02:00 Txokolatada eta erromeria goizaldera arte.

Isabel Ruano Bajo



2015eko abuztuaren 28an hil zen, 89 urte zituela.

Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.





I. URTEURRENA

Maximo Gorosabel Velar

2014eko irailaren 9an hil zen, 84 urte zituela. Haren oroimenez I. urteurreneko meza izango da, zapatuan, irailak 5, arratsaldeko 19:00etan Elgoibarko San Bartolome Deunaren eliz-parrokian. Joango zaretenoi alde zurretik eskerrak.

***Urtebete da
gure artetik joan zinela
baina beti izango zaitugu
gure oroimenean eta bihotzean.***



I. URTEURRENA

Faustina Zubiaurre San Martin

2014ko irailaren 8an hil zen, 90 urte zituela. Haren oroimenez I. urteurreneko meza izango da, eguaztenean, irailak 9, arratsaldeko 19:00etan Elgoibarko San Bartolome Deunaren eliz-parrokian. Joango zaretenoi alde zurretik eskerrak.

***Andra garbosia zan
Metalkuakua
makiña bat urtian
lan egindakua
bizitzen jakin zaban
ze zorienttua!
Ama, amama Fausti
zu beti goguan.***



I. URTEURRENA

Pedro Mari San Martin Juaristi

2014ko abuztuaren 5ean hil zen, 62 urte zituela. Haren oroimenez I. urteurreneko meza izango da, zapatuan, irailak 5, arratsaldeko 19:00etan Elgoibarko San Bartolome Deunaren eliz-parrokian. Joango zaretenoi eskerrak alde zurretik.



V. URTEURRENA

Jose Luis Huidobro Torinos

2010eko irailaren 4an hil zen, 58 urte zituela.

Beti izango zaitugu gogoan.
Emaztea, seme-alabak eta familiako gainerakoak.





EZKONTZAK
BATAIOAK
JAUNARTZEAK
AGURRAK
KINTADAK

KARAOKE arekin

ORDUTEGIA

7:30etik 22:00etara

Astrikhen arratsaldeetan itxita

Igandotan erretserba eginez gero zabalik.

Sigma
jatetxea

"Berezitasuna EGUR-IKATZETAN"

Tel.: 943 748 531

675 708 160

sigma.jatetxea@gmail.com


Jarri ezazu zure publizitatea BARRENen
edo

www.elgoiBARREN.eus webgunean

barren.publi@elgoibarkoizarra.com



BARREN

 943 743 704

Kalebarren plaza, 2 - 20870 ELGOIBAR



w w w . h a m a i k a . e u s

GURE BEGIZ
IKUSTEKO

DEBABARRENA
Sintonizatu
34. kanalean

Hamaika
telebista